



## **Boluntarioak**

### **Zer da? Jarraitu beharreko pausoak**

Pertsona boluntarioa bere denbora, ezagutzak eta esperientzia modu altruistan eta solidarioan lan ezberdinak burutzeko ematen duena da. Edonor izan daiteke boluntario, horretarako, nahikoa baita lan egiteko eta parte hartzeko gogoia izatea. Boluntarioki lan egitea gizartea aldatzea da, mundu hobe bat sortzeko lan egitea hain zuzen ere. Izan ere, boluntario izatea solidario izatea da, eta gizartea garatzeko ekintzetan parte hartzea. Pertsona boluntarioa hainbat ekintzetan barneratzen eta murgiltzen da, eta horrela, errealitatea aldatzeko eskubidea duen gaian bihurtzen da. Baina, badakizu benetan zer den eta zer ez den boluntario izatea? Ondoren laburbilduko dizugu:

### **Zer da boluntario izatea?**

Pertsona boluntarioa interes orokorra duten ekintzetan ondorengo baldintzak betez parte hartzen duena da:

1. Modu eskuzabal eta solidarioan.
2. Boluntarioki eta askatasun osoz.
3. Irabazi asmorik gabeko elkarteetan eta proiektu eta programa konkretuak dituzten erakundeetan parte hartzen duena.
4. Ordain-saririk jasotzen ez duena.

### **Zer ez da boluntario izatea?**

1. Modu espontaneoan, aldizka edota erakundeetatik kanpo ematen den laguntza eta egiten den parte hartzea.
2. Ordezko zerbitzu soziala egiten ari den pertsona.
3. Ordaindutako profesionalak ordezkatzen dituen pertsona.

Boluntario bezala lanean hasi nahi baduzu, izan itzazu ondorengo pausoak kontuan. Hasi behar duzun bidean lagungarri izango dituzu:

- Pentsa ezazu dituzun motibazioen inguruan.
- Zer nolako ardura izan dezakezun zehaztu.
- Lan egin behar duzun taldearekin eskainiko duzun denbora zehaztu.

- Boluntario bezala lan egiteko gehien atsegin duzun arloa aukeratu.
- Erakundeen inguruan informatu eta egokiena aukeratu.
- Erakundearekin egingo dituzun lanak zehaztu.

### **Boluntario agentziak**

Euskal Autonomia Erkidegoan hiru boluntario agentzia daude, lurralde historiko bakoitzeko bat. ERDU, Bolunta eta Gizalde dira horiek:

#### **ERDU**

ERDU, Elkarte eta Bolondresentzako Agentzia, Gasteizko udalaren, Arabako Foru Aldundiaren eta Vital Kutxaren zerbitzua da. Arabako elkarten eta hiritar ororen esku dagoen zerbitzua ematen du ERDUK.

Beste hainbat arloren artean, ERDUK elkarteei zerbitzu eta errekurtsioak eskaintzen dizkie, eta eskatzen duen pertsona orori boluntariotzaren inguruko informazioa eta laguntza ematen die.

#### **ERDU Elkarte eta Bolondresentzako Agentzia (Araba)**

Santa Maria 4 - 01001 Gasteiz Tel.: 945 161687 - 945 161948

[oficivoluntariado@vitoria-gasteiz.org](mailto:oficivoluntariado@vitoria-gasteiz.org)



#### **Bolunta**

Bolunta, Boluntariotza eta Elkarteentzako Agentzia 2001. urtean sortu zen Bizkaiko Foru Aldundiaren, Bilbao Bizkaia Kutxaren eta EDE Fundazioaren eskutik. Modu horretan, pertsona boluntarioek egiten zituzten ekintza eta zerbitzuak eta Bizkaiko erakunde boluntarioen lanak hobetu nahi ziren.

Boluntak zerbitzu integrala, doakoa eta kalitatezkoa eskaintzen die irabazi asmorik gabe lan egiten duten erakundeei eta boluntario bezala lanean hasi behar diren pertsoneri.

Horretarako, talde profesional bat du Boluntak.

#### **Bolunta Boluntariotza eta Elkarteentzako Agentzia (Bizkaia)**

Ronda z/g - 48005 Bilbao Tel.: 94 4161511 [bolunta@bolunta.org](mailto:bolunta@bolunta.org)



#### **Gizalde**

Gizalde Gipuzkoako Boluntariotza 1998an jarri zuen abian

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Euskadiko Kutxak eta



Hezkide Eskolak. Agentzia horren bidez, garai hartan jendeak boluntariotzaren inguruan zuen interes gero eta handiagoari erantzun bat eman nahi zitzaien.

Gaur egun Gipuzkoako boluntario eta taldeen biltoki bilakatu da Gizalde. Izan ere, agentziak hainbat zerbitzu eskaintzen ditu, hala nola, informazioa, aholkularitza, errekursoak eta gizarte ekintzen artean bitarteko lana.

**Gizalde Gipuzkoako Boluntariotza (Gipuzkoa)**

Idiakez 6 - Donostia Tel.: 901 200000 [gizalde@gizalde.com](mailto:gizalde@gizalde.com)